

# GAILU DIGITALEN ERABILERA



LAUAXETA  
IKASTOLA

LAUAXETA IKASTOLAKO  
IKUSPEGIA

# 2024

# Aurkibidea

---

- 01** Gailu digitalak ikasleen garapenean
- 02** Nola lantzen dugu Lauaxetan?
- 03** Formazio plana
- 04** Ikastolako arautegia
- 05** Familientzako jarraibideak

# Gailu digitalak ikasleen garapenean

Gure ikasleen garapen pertsonalak, ezinbestekoa du bere STEM kompetentzia eta kompetentzia digitalaren garapena bideratzea. IKTek funtzio garrantzitsu bat dute arlo ezberdinetako edukien garapenean eta ikasgai bakoitzeko programazioaren parte dira.

Hezkuntza legeari erantzunez ikaslearen kompetentzia digitalaren garapenean hainbat eremu jorratu behar ditugu:



## Erabilera etikoa

Identitate digitala, plagioa, delitu informatikoak, ciberbullyinga, ...



## Erabilera didaktikoa


Ikasketara, entrenamendura, informazio bilaketara eta ikerketara bideratutako plataformen, programen eta aplikazioen bidez



## Erabilera osasuntsua

Menpekotasunak, osasun arazoak eta albo kalteak ekiditzeko, eskola orduetan gailuekiko esposizioa neurtua eta progresiboa da:  
HH2: 10 minutu gehienez, HH3-5: 15-20 minutu, LH 1 zikloa: 20-30 minutu, LH 3tik aurrera, 2 ordu inguru, eta DBHtik aurrera 3 ordu inguru, beti ere helburu pedagogikoei erantzuteko

Gela guztiak teknologikoki hornituta daude Hezkuntza legeak haintzat hartzen duen "kompetentzia digitala" garatzeko eta lantzeko beharrezkoak diren gailuekin, ikas-erperientziak aberastu ditzaten:



# Nola lantzen dugu Lauaxetan?

**Aipatutako helburuak lortzeko, ondoko ekintzak garatzen ditugu:**

## **01 IKT taldea**

IKTen inguruan gauzatzen diren ekintza guztiak koordinatzeko, Lauaxeta Ikastolan arlo desberdinetako profesionalak osotutako talde bat dugu. Talde honek, momentu bakoitzean, teknologia berriek hezkuntzan izan beharreko txertaketa egokiena zehaztu eta gauzatzen du. iPaden kasuan, ikastolan eta etxean gure firewallaren bidez uneoro, ikasleentzat desegoki irizten ditugun webguneetarako sarrerak mugatu egiten dira.

Telefono mugikorrari dagokionean, ikastolan debekatuta dago ekartzea DBH 2ra arte. Hortik aurrera ez ekartzea gomendatzen da. Telefonoa behar izatekotan ikastolakoa erabil dezakete.

Ikasleren batek ezinbestekoa balu ekartzea takilan gordeta egon behar da egun osoan zehar.

## **02 Ikasle, familia eta irakasleentzat formazio plana**

Gailu digitalen erabilera etiko, didaktikoa eta osasuntsua bermatzeko, formazio ekintzak garatzen ditugu, ikasleei eta familiei zuzenduak, baita beraien ikastetxeetan iPada integratu nahi duten ikastetxeei zuzenduak ere.

## **03 Ikastolako arautegia**

Gailuen erabilerarekiko jarrerak zehazteko helburuz, iPadaren eta mugikor eta bestelako gailuen inguruko arauak zehaztu ditugu.

## **04 Gurasoentzako jarraibideak**

Gure esperientziak erakusten digunetik abiatuta, dagokionean gurasoentzako jarraibideak eskaintzen ditugu.

# Formazio plana

HARTZAILEAK	DATA	EDUKIA	EMAILEA
LH3-LH4 ikasleak	Azaroan	Heziketa emozionala babes faktore bezala	Sasoia erakundea
LH3-LH4 gurasoak	Abenduan	Heziketa emozionala babes faktore bezala	Sasoia erakundea
LH4ko ikasleak eta familiak	Irailean	Ipada jasotzerakoan erabilera arauen aurkezpena	Ikastolako IKT taldea
LH3-LH4 gurasoak	Otsailean	Gailu digitalen erabilera egokia	Segureskola
LH5eko ikasleak	urtarrilean	Heziketa emozionala: teknologien arriskuak	Sasoia erakundea
LH6ko ikasleak	urtarrilean	Aldaketarako prestatzen	Sasoia erakundea
LH5-6 gurasoak	Otsailean	Heziketa emozionala: teknologien arriskuak eta nerabezaroa	Sasoia erakundea
DBH1eko ikasle berriak eta euren familiak	Irailean	Ipada jasotzerakoan erabilera arauen aurkezpena	Ikastolako IKT taldea
DBH1 gurasoak	Azaroan	Kontrol parentalerako tresnak	Segureskola
DBH1eko ikasleak	Azaroan eta otsailean	Gailuen erabilera ziurra	Segureskola
DBH1eko familiak	Otsailean	Gailuen erabilera ziurra	Segureskola
DBH2 ikasleak	Urtarrila	Sexu heziketa eta arriskuak sarean	Desira erakundea
DBH3ko ikasleak eta familiak	Urtarrielan	Sustantziadunak eta sustantzia gabeko kontsumoen mendekotasuna: kanabisa, jokuak eta apostuak	Sasoia erakundea
DBH4 ikasleak	Urtarrila	Sexu heziketa eta arriskuak sarean	Desira erakundea
Batx1eko ikasleak	Urtarrilean	Sustantziarik gabeko adikzioak	Sasoia erakundea
Batx1eko gurasoak	Urtarrilean	Sustantziarik gabeko adikzioak	Sasoia erakundea
Batx2 ikasleak	Azaroan	Genero biolentzia legearen azalpena eta delitu digitalak	Patricia Zamorano

Hauetaz gain, famileintzako formazio plan osoa ezagutu nahi baduzu [hemen duzu aukera](#).

# Irakasleentzako ekintzak

2010. urtetik etengabeko IKT formazioa urtez urte


Irakasle taldearen %80 baino gehiagok Europako markoaren arabera B2 IKT kompetentzia lortuta

## Ikastolako arautegia



### Mugikorra eta tresna elektronikoen ingurukoak

- **Ikasleek ezin dute telefono mugikorrik edo smartwatch edo bestelako gailurik erabili** (kalkulagailuak eta ordenagailuak salbu, betiere irakasleen ikuskaritzapean). Beraz, ikastolan dauden denbora guztian, aparatu hauek itzalita eta takiletan egon behar dira. Dena dela, DBH 2. mailara arte mugikorrak zein smartwatchak debekatuta dago ikastolara ekartzea. Norbaitek ekarri beharko balu, baimena eskatu eta Zuzendaritzan utzi beharko du.
- **Mugikorra, smartwatcha eta bestelakoak itzalita eta gordeta egon behar dira** ikastola orduetan eta esparru guztietan.
- Tresna hauen **arduradun bakarra ikaslea** bera izango da.
- **Norbaiti mugikorra zein beste edozein tresna kenduz gero, ez da bueltatuko familiak deitu arte.** Bigarren aldiz gertatuz gero, ikastolan gordeko da ikasturtea amaitu arte.



# iPadaren ingurukoak

## 1.Segurtasuna

- Dispositiboak pasahitza izatea ezibestekoa da (sarrera pasahitza, etab.). Pasahitz hauek ez zaizkie lagunei esan behar.
- iPadeko erabiltzaile izena debekatuta dago kentzea eta beste bat jartzea. iPada erabiltzaile horrekin bakarrik erabiltzeko konfiguraturik dago.
- Ikaslearen informazio pertsonala soilik ikaslearena da.
- Ikastolan dagoen bitartean, Ikastolatik ikaslea iPad-arekin zer egiten dagoen ikusi daiteke MDM zerbitzuaren bidez. Hala ere, aukera hau soilik, mantenimendu edo segurtasun kontuengatik erabiliko da, inoiz ez ikaslearen informazio pertsonala ikusteko.
- Irakasle batek edozein momentutan eskatu diezaiokie ikasle bati zabalik dituen appak ikustea.
- iPad-a eskola tresna bat da, eta beraz, ez da gomendagarria beste pertsona batzuek ere erabiltzea.
- Kide baten ipada baimen barik erabiltzea, falta moduan kontsideratuko da.
- Ikastolako wifi sarea eskola erabilerarako soilik da.

## 2.Bateria:

- Ikaslearen ardura da iPad-aren bateria etxetik kargaturik ekartzea. LH-ko ikasleen kasuan, iPada etxera eramaten ez duten egunetan, bere ardura izango da ere gelan kargatzen jartzea.

## 3.Mantenimendua

- Gomendagarria da, sortzen den eta ahal den guztia sarean gordetzea.
- Ikastola ez da ikasleak galdu dezakeen informazioaren arduraduna izango.
- Ikasleak ez du "Jailbreak" egin behar, horrek dispositiboaren garantia bertan behera uzten duelako.
- Ikasleak ezingo du, segurtasunezko erabilera baterako jarrita dagoen konfigurazioa aldatu.
- iPad-a jatorrizko egoerarako konfigurazio eran ez da inoiz jarri behar, horrek, iPad-ean egindako konfigurazio guztia aldatuko lukeelako.


## 4. Erabilera eta aplikazioak

- Ikasle bakoitzak bere apple ID-a izango du.
- Ikastolatik aukeratutako appen deskarga Ikastolako kontutik egingo da %60 aurreztea suposatuko duelako.
- Aurikular batzuk izatea beharrezkoa da.

## 5. Arau haustekak

- iPad batetik egindako erabilera ez egokia, iPad horren jabearen ardura izango da.
- Eskola ekintzetarako ez diren sare sozialen erabilera edota argazkiak egitea guztiz debekaturik dago.
- Irakasleen edo ikaskideen irudia erabiltzea (hauen baimenik gabe) legean tipifikatuta dagoen delitua da. KONTUZ. Argazkiak edo bideoak baimen gabe ateratzea edo erabiltzea oso larritzat hartuko da.
- Identitate digitala gure identitatearen parte denez, arau hauste baten aurrean legedi orokorrera joko da eta ohikoak diren neurriak hartuko dira.

# Familiantzako gailuen inguruko jarraibideak



**Internet familian:** erabilera segururako jarraibideak.  
Gurasoentzat eta beste pertsona heldu batzuentzat  
(Eusko Jaurlaritza)

## Erabilera arau argiak ezarri:

Arau multzo bat ezarri gailuak erabiltzeko baimendutako lekuak (logela eta jateko lekuak babestuz) eta momentuak zeintzuk diren argi adieraziz. Ideia ona litzateke baita kontratu bat adostea. Hemen duzu eredu posible bat. Babestu:

- Atsedenekuak, eta logelan ez erabili.
- Familiako uneak, familiako bazkariak eta/edo afariak .
- Ikasteko espazioak eta uneak, beharrezkoak ez direnean gailuen distrakzioa eta interferentzia saihestuz.

## Teknologien erabilera sortzailea eta hezitzailea sustatzea:

Erabilera ludikoaz haratago, teknologiak modu sortzailean edo zerbaiti buruz informatzeko eta ikasteko erabiltzea.

## Jarduera aniztasuna sustatu:

Lineatik kanpoko jarduerak sustatu, online eta off line egiten dituzten ekintzak orekatuz, hala nola, kirolak, irakurketa, musika, eskulanak eta batez ere familian egiten diren ekintzak, eta horrek euren ongizatean nola laguntzen dien erakutsi.

## Denbora mugak ezarri:

Mugatu eguneroko pantaila-denbora gehiegizko erabilera saihesteko. Egunean egiten duten erabilera horrela ikus daiteke: [apple/](#) [android](#). Gailu mugikorak erabiltzeko ordutegi espezifikoak finkatu, bereziki otordu denborak eta oheratu aurrekoak kontuan hartuz.

## Karga komuneko eremuak ezarri:

Gauean, gelatik kanpo, lokartzeko ohitura ona eta atsedena sustatzeko, gailuak kargatzeko leku komun bat jarri.





### Ezagutu zure seme-alabak erabiltzen dituzten aplikazioak eta webguneak:

Seme-alabekin komunikazioa sustatu, hitz egin, esperientziak partekatu eta dispositiboetan instalatuta daukatena eta sartzen diren webguneen berri izan. Beharrezkoa den kasuetan gurasoen kontrolerako tresnak ([apple/](#) [android](#)) erabili daitezke eduki desegokiko sarbidea mugatzeko.

### Sare sozial ezberdinak erabiltzen hasteko gutxienezko adina kontuan hartu:

- [Menores y redes sociales ¿Cuál es la edad mínima para cada una de ellas?](#)  
Instagram 13, Tik-tok 13, Be Real 13, X 13, Twitch 13, Youtube 14, Whatsapp 16
- [Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de derechos digitales](#)

### Lineako segurtasunari buruz hezi:

Online pribatutasunari buruz hitz egin, pasahitza seguruak eta pertsonalak izatearen garrantzia eta informazio pertsonala arrotzekin ez partekatzearena gogoraraziz.

### Babes emozionala eskaini:

Zure seme-alabek online erronkei edo arazoei aurre egin behar badiete, ziurtatu beti zuengana jo dezaketela laguntza eta orientazio bila.

### Ondorioak ezarri:

Gailu mugikorrek erabiltzeko arauak betetzen ez badira, ondorio argiak zehaztu. Honen barruan, erabilera aldi baterako mugatzea sar daiteke.

### Gailuen kontrol aukerak erabili:

Hainbat aukera dagoz familien eskura, gailuen erabilera egokiaren jarraipena egion ahal izateko: [Qustodio](#), [Family link](#), [Parent](#), ...

### Zer adin da egokia nire semea-alabari mobila erosteko?

Ikastolari hau arautzea ez dagokio. Hala ere, ikastolatik zure erantzun pertsonal eta propioetara heltzeko hausnarketarako galdera eta pausu batzuk proposatzen dizkizuegu:

- [Zertarako nahi duzu](#) seme-alabak mugikor bat izatea eta, beraz, gailu horrek [zer funtzionalitate izan beharko lituzke?](#)
- [Gurasoen kontrolerako dauden tresnak eta aplikazioak ezagutu](#), gailu horren erabilera egokiaren jarraipena egiteko.
- [Gailuaren erabileraren jarraipena egiten duzula ziurtatu](#) eta seme-alabarekin hitz egin.
- Bikotekidearekin [irizpidea partekatu eta koherenteak izan](#) seme-alabek mobilaren inguruan egin beharreko erabilera eta helduek egiten dugun erabileraren artean. Eredu onak izan.
- Gogoan izan, halaber, zure seme-alabak adingabeak diren bitartean, [helduak zaretela, guraso zareten aldetik, dispositibo horren arduradunak.](#)